



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2020ko bigarren hiruhilekoa



LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Agertoki-aldaketa: covid-19ren inpaktua.....	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera	7
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren Osagarriak	11
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak.....	17
Eranskina – Aurkibideak	23
Eranskina – Metodologia	27
Fitxa Teknikoa	30

AGERTOKI-ALDAKETA: COVID-19REN INPAKTUA

- ezohiko egoera bat
- paisaia ilustratzeko bi grafiko
- covid-19aren krisia eta 2008ko krisia: desberdintasun batzuk



a | ezohiko egoera bat

2020. urtean pentsatzean, covid-19aren lehen kasuak, alarma-egoera lehen aldiz onartu zutenekoa (martxoaren 15a) eta funtsezkoak ez diren jarduerak eten izana (martxoaren 29a) gogoratuko dira etorkizunean; herritarrak zortzi astez itxialdian izan dituen eta pertsonen mugikortasuna eten duen aurrekaririk gabeko gertakari moduan gogoratuko da.

Haren eragin ekonomiko eta sozialak azaleratzen ari dira, eta horien artean nabarmentzekoak dira enpleguaren galera eta langabezia-tasaren gorakada, jarduera-sektoreen porrota (txikizkako merkataritza, turismoa, ostalaritza, jarduera artistikoak eta kulturalak, etab.), telelana erabiltzea hori egitea ahalbidetzen duten jarduera guztietan eta jardueraren bat-bateko balaztadaren inpaktu ekonomikoa leuntzeko babes publikoko neurriak abiaraztea. Horri 2020 eta 2021 urteetarako aurreikus daitezkeen eszenatoki hipotetikoak ere gehitu behar zaizkio.

Euskal Kontsumitzaileen Konfiantzaren Adierazlea lur horretan ernetzen da eta espanturik gabe adierazten du bere irudiko zenbateko kaltea eragingo duen horrek: -24 puntuko emaitza aurreikusten du, ezkorra, ezbairik gabe, 2008ko krisian erregistratu ziren datuen parekoa (III hiruhilekoa, -25 puntu) Hala ere, 2008ko krisiarekin gertatu zenarekin alderatuta krisi honetatik irteteko moduaren mende egongo da profil ezkor horrek irautea ala ez.

————— Kontsumitzailearen konfiantza. EAE. 2008 krisia eta covid-19 krisia —————

	<u>2008ko krisia</u>				<u>covid-19 krisia</u>
	<u>III-08</u>	<u>IV-08</u>	<u>I-09</u>	<u>II-09</u>	<u>II -20</u>
Kontsumitzailearen konfiantza adierazlea	-25	-29	-30	-33	-24

Iturria: FCVN (2012 arte) eta Laboral Kutxa


b | paisaia ilustratzeko bi grafiko

Norbanakoek egungo egoeran eta epe motzerako duten konfiantzan erabateko beharakada egon da, grafiko hauek argi erakusten duten moduan:

- EAEko langabetuen kopuruak gora egin du; maiatzak osotara 141.715 langabetu utzi ditu (covid-19aren aurreko otsailean baino 24.064 gehiago), baina datuok oraindik urrun daude 2013. urteko zifra maximoetatik (175.413, urteko batezbestekoa).
- Jarduera jaitsi egin da (BPG) EAEn (-% 4,7) eta Espainian (-% 5,2), eta galera horrek eragina izango du hurrengo hiruhilekoetan ere. Dagoeneko 2008ko krisian erregistratutakoa baino altuagoa da. Gakoa da zenbat denbora beharko den susperraldirako



covid-19 krisia

Erregistratutako langabezia EAE



covid-19 krisia eta 2008ko krisia

BPG bilakaera hiruhileko arteko aldakuntza tasa. Espainia eta EAE.



Iturria: EIN, Eustat eta SEPE

c | covid-19aren krisia eta 2008ko krisia: desberdintasun batzuk

Herritarrek bizi duten egoerak 2008an hasi eta 2014an amaitu zen krisira garamatza atzera. Hura, ordea, oraingoaren desberdina izan zen hainbat arlotan:

- Jatorri desberdina du: 2008ko krisiaren abiapuntua nagusiki finantzen eta higiezinaren arlokoa izan zen. Kasu honetan eskariaren shock-a gertatu da, eta *a priori* ez du doitze estruktural baten beharrik, “normaltasunera itzulera” baizik.
- Familien eta enpresen egoera finantzarioa nabarmen hobea da. 2008ko krisiaren abiaburuan eragile ia guztiek zorpetze handia zuten, bereziki familiek; gaur egun, desapalankamenduak ezaugarritutako hamarkada baten ondoren, zor gutxiago daude.
- Erantzunean izandako batasuna. 2008 eta 2013 urte amaiera bitarte luzatu zen krisia baldintzatu zuen eragileetako bat instituzioen –batez ere Europa mailakoak– erantzun koordinatu baten falta izan zen, eta herrialde kaltetueneren defentsa falta.

Orain, covid-19aren krisian, badirudi hori ez dela horrela: asko dira aldi berean kaltetutako herrialdeak (mundu mailako krisia), eraginkortasun egiaztatua duten erremintak daude eskuragai (zorren erosketa, Europako Egonkortasun Mekanismoa), eta badago babes-funtzen baliabideen inguruko akordio politikorik.

Egungo krisiari garrantzirik kendu gabe, indizio horien arabera, oraingo krisiari aurre egiteko potentzial hobea dago: argudio horiek justifikatzen dutenez, orokorrean 2020ko aurreikuspen oso negatiboek susperraldi esanguratsua izango dute 2021ean. Hala eta guztiz ere, badirudi 2019an lortutako maila berreskuratzeke 2022ra itxaron beharko dugula.

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA


- EAEko familien konfiantza gainbeheran
- jarrera ohikoa inguruko familietan
- eta antzeko profila Frantzia, Alemanian eta Erresuma Batuan



1 EAEko familien konfiantza gainbeheran

2020ko bigarren hiruhilekoak argi erakusten du covid-19aren krisiaren inpaktua zein izan den EAEko familietan. Atxikitako grafikoak erregistratutako konfiantzaren galera erakusten du; adierazle hori -24ko balio guztiz negatiboan gelditu da, aurreko urteetako erregistroek erakusten dituzten zifretatik urrun.


Datu hori perspektiban ikusteko eta familien konfiantzan izan den porrot horren garrantzia neurtzeko argigarriak dira datuok: -25 eta -33ko balioak erregistratu zituen 2008ko hirugarren hiruhilekoan eta 2009an. Bestela esanda, egoera “normaltasunera itzultzeko” ari bada ere, aurreikusten da konfiantza balio negatiboetan geldituko dela hurrengo hiruhilekoetan.



2 | jarrera ohikoa inguruko familietan

EAEko familietan erregistratutako konfiantzaren jaitsiera inguruko lekuetako familien konfiantzaren berdintsua da. Izan ere, bigarren hiruhileko honetan, EAEko familiak Estatuakoak bezain ezkorrak dira (-29) eta baita EB-27koak bezainbeste ere (-21).

Zentzu horretan, hiru multzoek dute konfiantzaren galera, aurreko hiruhilekoetan aurreikus zitekeena eta covid-19aren krisiak areagotu duena.



Oharra: Eurostatek kontsumitzailearen konfiantzari buruzko serie osoa berrikusi du. EB-28ko I. eta II: hiruhilekoetako datua EB-27koa da Erresuma Batutik irten ondoren


* II. Lauhilabeteko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Apirila-Maiatzeko batez bestekoa.

3 | eta antzeko profila Frantzian, Alemanian eta Erresuma Batuan

2020ko bigarren hiruhilekoan, Frantziako familien iritziak (-18), Alemaniakoenak (-13) eta Erresuma Batukoenak (-23) konfiantza-jaitiera antzekoa erregistratu du, eta hiru kasuetan, oso beherakorra da; azpimarratzekoa da, hala ere, Frantzia eta Alemaniako deskonfiantza-maila zerbait txikiagoa dela Erresuma Batukoa eta EAeko baino (Espainiako balioetatik oso gertu, -29).

Kontsumitzaileen konfiantza berriz eraikitzeko zerikusia dute osasun-krisiaren inpaktuak eta kudeaketak, abiarazitako neurriek eta ekonomia bakoitzak duen kaltetze mailak. Argigarria da maiatzaren 9an kutsatuen kopurua¹ 281.661, 240.660, 184.742 eta 151.671 zela Erresuma Batuan, Espainian, Alemanian eta Frantzian, hurrenez hurren.

Kontsumitzaileen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak



Oharra: Eurostatek kontsumitzaileen konfiantzari buruzko serie osoa berrikusi du. EB-28ko I. eta II: hiruhilekoetako datua EB-27koa da Erresuma Batutik irten ondoren

* II. Lauhilabeteko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Apirila-Maiatzeko batez bestekoa.

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGARRIAK


- ekonomia orokorraren bilakaeraren inguruan, ezkortasuna nagusi
- enpleguaren inguruko igurikimen nabarmen negatiboak
- familiaren ekonomiaren gaineko igurikimenak ere okerrera egin du
- eta horrek igurikimen negatiboak dakartza aurrezkietan ere
- litekeena da azkar irtenez gero konfiantza ere berreskuratzea

4 | ekonomia orokorraren bilakaeraren inguruan, ezkortasuna nagusi

Covid-19aren krisiaren eraginak bat-bateko balaztada eragin du jarduera ekonomikoan: 2020ko lehen hiruhilekoko datuek hiruhileko batetik besterako jardueraren $-\% 4,7$ ko eta $-\% 5,3$ ko atzeraldia iradokitzen dute EAEn eta Espainian (Eustat eta EIN-aurrerapena, hurrenez hurren).

Kezkaz jositako eszenatoki honetan, EAEko familien ikuspegi orokorra ados dago susperraldia 2021ra arte ez dela etorriko eta 2020ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoak are negatiboagoak izango direla dioten iragarpenekin. Ondorioz, zeharo ezkorra da (-32) EAEko familien konfiantza datozen hamabi hilabeteetako jarduera ekonomikoaren bilakaerari dagokionez.


Aintzat hartu beharrekoa: covid-19aren krisiak areagotu egin ditu lehenagotik okertzen ari ziren igurikimenak eta aurreko hiruhilekoetan balio negatiboak erakusten zituztenak.



5 | enpleguaren inguruko igurikimen nabarmen negatiboak

2020ko bigarren hiruhilekoak EAEko familien igurikimenean jaitsiera bortitza erakusten du, lan-merkatuaren martxari dagokionez. Hala, lehen -4ko balioa zuen indizea -44koa da orain (40 puntuko jaitsiera) eta erregistratutako beherakada bortitzak aurreko hiru hiruhilekoetan ikus zitezkeen beherakada areagotu du.


Argi ikusten da indizearen balioa negatiboa dela. Indizea norbanakoen iritzietan islatzen da: hamar lagunetatik seik kalkulatzeko datuak hamabi hilabeteetan langabezia asko (% 42) edo gutxi (% 27) haziko dela. Hamarretik hiruk, berriz, uste dute berdin jarraituko duela edo jaitsi egingo dela. Covid-19aren inpaktuak hedatzen ari diren datuek EAEko langabezia-tasaren igoera azpimarratzen dute (maiatzean 24.064 gehiago ziren otsailan baino). Hain justu, hori da ikuspegi horien testuingurua.



6 | familiaren ekonomiaren gaineko igurikimenak ere okerrera egin du

Datozen hamabi hilabeteetarako EAEko familiek familiaren ekonomiaz dituzten igurikimenek gainerako indizeek erakusten duten ezkortasun berbera erakusten dute. 2020ko bigarren hiruhilekoan negatiboak dira (-13, -12 puntu), baina esan daiteke ez direla hain negatiboak balioan (-32 eta -44 ekonomia orokorrean eta langabezian) eta kaltean (25 eta 40 puntuko jaitsiera, hurrenez hurren).

Indizearen emaitzak familiek egin duten balorazio orokorra (kanpoko eta barnekoa) laburbiltzen du; hamarretik bost familiek (% 52) uste dutenez, "familiaren ekonomiak orain arte bezalaxe jarraituko du", baina hirutik batek okerrera izatea aurreikusten du.




7 | eta horrek igurikimen negatiboak dakartza aurrezkietan ere

EAEko familien aurrezki-igurikimenaren indizeak familiek datozen hamabi hilabeteetako aurrezpena nolakoa izatea espero duten adierazten du, jada egindakoarekin (azken hamabi hilabeteekin) alderatuta.

2020ko bigarren hiruhilabeteko emaitzek covid-19ak eragindako inpaktuak egoera okertu izana islatzen dute: lau hiruhilekoren ondoren, aurrezkietan hobekuntza aurreikusten zen, baina bigarren hiruhileko honek balio negatiboetara itzularazi gaitu (-6).

Balorazio horrek errenten galera eta aurrezkiak beste helburu batzuetarako erabiltzearen beharra iradokitzen du: familien erdiek diote ziur edo seguruenik aurreztu egingo dutela (% 51), eta beste erdiak uste du seguruenik ez duela aurreztuko (% 23) edo ziur dagoela ezetz (% 25).



8 | litekeena da azkar irtenez gero konfiantza ere berreskuratzea

2020ko bigarren hiruhilekoan covid-19ak mundu osoan eragin duen osasun-alertaren eta ekonomia- eta lan-krisiaren ondorioz, EAEko kontsumitzaileen artean ezkortasuna azalerratu da.

Konfiantzan izandako jaitsieraren (-23) arrazoiak ekonomia orokorrari eta enpleguari buruzko igurikimenen okertze nabarmena izan dira; lehenengo kasuan -32 eta -25 puntukoa izan da jaitsiera, eta bigarrenengan -44 eta -40koa. Bi datu horiek hondoa jo dutela esan daiteke. Eraitza horiei familiaren ekonomiaren igurikimenen (-12 puntu) eta aurrezkien igurikimenen (-13 puntu) datu negatiboak gehitu behar zaizkie, horiek ere negatiboak (-13,-6), baina apalagoak.

EAEko familiek 2008ko hirugarren hiruhilekoan erregistratutako ezkortasun maila berbera edo antzekoa erakusten dute. Hala eta guztiz ere, krisitik ateratzeko abiaduraren eta eraginkortasunaren arabera suspertu, mantendu edo okerragotuko da datu hori.

Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	<u>2017</u>	<u>2018</u>	<u>2019</u>	<u>IIIH-19</u>	<u>IVH-19</u>	<u>IH-20</u>	<u>IIH-20</u>	<u>aldea</u>	
Familien konfiantza	1	1	-2	-5	-10	-1	-24	-23	▼
Ekonomia orokorra	6	3	-6	-10	-17	-7	-32	-25	▼
Etxeko ekonomia	-5	-4	-2	-2	-7	-1	-13	-12	▼
Langabeziaren bilakaera	12	10	-4	-7	-22	-4	-44	-40	▼
Aurrezteko gaitasuna	-10	-5	2	0	6	7	-6	-13	▼



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

- prezioen igoera aurreikusten dute EAeko familiek
- erosteko unearen balorazioak okerrera egin du
- eta «erosketa handiak» egiteko igurikimenak okerrera egin du
- eta etxebizitza eta autoa erosteko asmoa geldirik dago oraindik
- kontsumo-igurikimena txikitzea; etxebizitzaren eta automobilen erosketen ahultasuna




9 | prezioen igoera aurreikusten dute EAEko familiek

Aurreko hiruhilekora arte, bi familiatatik batek uste zuen prezioak aurreko hamabi hilabeteetan bezainbeste igoko zirela (% 53, % 54 eta % 56). Alabaina, 2020ko bigarren hiruhilekoan proportzio hori jaitsi egin da heren baten erantzunetan (% 33), eta, batez ere, nabarmen handitu da prezioak azkarrago igoko direla uste dutenen multzoa (% 30etik % 49ra).

Gauzak horrela, prezioen bilakaeraren igurikimena nabarmen negatiboa da (-30,8), urteko lehenengo hiruhilekoaren aldean igoera nabarmenarekin (-14). Emaitza horretan eragina izan dezake martxoan eta apirilean prezioek izan duten bilakaerak, batez ere elikagaiak eta alkoholik gabeko edarien prezioen bilakaerak (+% 2,7 eta +% 3,9) –hori erabakigarria izan da itxialdian zeuden familien gastuetan–; izan ere, prezioak orokorrean (Kontsumorako Prezioen Indizea) ez dira ia igo (+% 0,1 eta -% 0,5).

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?² (pertsonek %a)




¹ Azken 12 hilabeteetarako dagokienez.

10 | erosteko unearen balorazioak okerrera egin du

Oro har, nola baloratzen duzu gaur egungo unea, etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteari dagokionean?

Logikoki, ekonomiaren eta enpleguaren ezegonkortasun testuinguru honek erosteko unearen inguruko iritzia aldarazi die EAEko familiei. Gauzak horrela, nabarmentzekoa da erosteko unearikiko axolagabe ageri ziren familien multzoak izan duen murrizketa (lehen % 64, orain % 39); orain uste dute une txarra dela erosketetarako (% 22tik % 42ra igo da multzo horren ehunekoa).

Honela, erosketaren unearen balorazio-indizeak atzera egin du (-8tik -22ra), eta 2015eko lehenengo seihilekoko datuetara itzuli da (-25).



¹ Azken 12 hilabetei dagokienez


11 eta «erosketa handiak» egiteko igurikimenak okerrera egin du

Nolakoak uste duzu izango direla etxeko erosketak eta gastuak, adibidez, altzariak, etxetresna elektrikoak, etxeko konponketak, etab., datozen 12 hilabeteetan¹?

Beren erosketa handiek berdin jarraituko dutela uste dutenen kopuruak behera egin du (% 61etik % 56ra), eta nabarmen egin du gora erosketa mota horiek zerbait gutxiago (% 14tik % 24ra) edo askoz gutxiago (% 3tik % 10era) egingo dituztela uste dutenen ehunekoak. Horrek eragin nabarmena du erosketa handiak gehiago egingo dituztela uste dutenen multzoan (% 23tik % 9ra).

Erosketa handien igurikimenen indizeak positibo izateari utzi dio (+3tik -17ra pasatu da) eta azken sei urteetan bezala, balio negatiboetara itzuli da. 2008ko krisia eta izan zuen luzapena oso esperientzia berria da familia gehienentzat, beraz, egoera hartara itzultzeko beldurrak bultzatuta, familia asko erosketa handi horiek berraztertzen ari dira.

Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan¹




¹ Azken 12 hilabeteekin alderatuz.

12 | eta etxebizitza eta autoa erosteko asmoa geldirik dago oraindik

EAEko familien % 1,1ek bakarrik erosiko du etxebizitzaren bat hurrengo urtean; aurreko hiruhilekoetako ehuneko antzekoa da. Kolektibo honi ez dio asko eragin egungo krisiak, lehendik ere multzo txikia zelako. Hortaz, txikitasun horretan berdin jarraitzen du, eta ez du hobekuntzarako itxurarik.

Etxebizitza erosteko asmoa


(hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonek %a)



EAEko familiek ibilgailu bat erosteko duten asmoaren datuak¹ 2019 urteak utzi zituenaren antzekoak dira: familien % 5,6k du horretarako asmoa. Erosketa gutxi egitea nagusitzen da, eta hurrengo hilabeteetako erosketak igotzen badira, beharbada erabakita zuten zerbaiten erosketa atzeratu izanaren edo laguntza publikoen planen ondorio dira.

Ibilgailua erosteko asmoa

(hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonek %a)



13 kontsumo-igurikimena txikitzea; etxebizitzaren eta automobilen erosketen ahultasuna

2020ko bigarren hiruhileko honetan, EAEko familiek...

- Azken urtean erregistratutako prezioen oso gaitetik dagoen igoera aurreikusten dute, beharbada elikagaien prezioaren azkenaldiko bilakaera gorakorren ondorioz –bereziki eragin handikoak itxialdi luzean zehar– baina baita edukiera, eta ondorioz, errentagarritasun mugatua izango duten zerbitzuen ondorioz ere.
- Erosteke unearen balorazioak nabarmen egin du okerrera; 2015ko lehenengo hiruhilekotik ikusi gabeko balio negatiboetara itzuli da.
- Ondorioz, erosketak handien igurikimen baxuak dituzte, eta bi hiruhilekotan zehar positiboa izan den indizea berriro ere negatibo bihurtu da.
- Etxebizitza eta automobilak erosteko igurikimenak (% 1,1 eta % 5,6, hurrenez hurren) balio oso baxuetan mantendu dira eta ahulak izaten jarraitzen dute. Martxoan, apirilean eta maiatzean jaso dira salmenta horien erregistrorik okerrenak, hilabetetik hilabeterako jaitsiera izugarri handiekin. Hala eta guztiz ere, datozen hilabeteetako bilakaeraren zein den kontuan hartuta, oso azkar hobetu daitezke datuok (ere). Hala izanda ere, ez dute hobetuko urteko balantze orokorra.

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	2017	2018	2019	III H-19	IV H-19	I H-20	II H-20	Aldea	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	-17	-23	-20	-16	-31	-17	-31	-14	▼
Erosteke unearen balorazioa	-2	-9	-5	-6	-8	-8	-22	-14	▼
Erosketak egiteko igurikimenak	-7	-6	0	-2	0	3	-17	-21	▼

¹ 2014, ICC neurriaren hasiera momentua

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantza indizea

euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazleak



I laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2018	2019	III H-19	IV H-19	I H-20	II H-20	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	1	-2	-5	-10	-1	-24	▼
• Estatua*	-4	-6	-6	-10	-10	-29	▼
• EB*	-5	-6	-7	-7	-7	-21	▼
o Frantzia*	-10	-9	-8	-6	-8	-18	▼
o Alemania*	0	-2	-3	-3	-3	-16	▼
o Erresuma Batua*	-7	-10	-9	-10	-6	-23	▼
Osagaiak: familien konfiantza. EAE							
• Ekonomia orokorra	3	-6	-10	-17	-7	-32	▼
• Etxeko ekonomia	-4	-2	-2	-7	-1	-13	▼
• Langabezia	10	-4	-7	-22	-4	-44	▼
• Aurrezkia	-5	2	0	6	7	-6	▼
Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk. EAE							
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-23	-20	-16	-31	-17	-31	▼
• Erosteke unearen balioztapena	-9	-5	-6	-8	-8	-22	▼
• Erosketak egiteko igurikimena	-6	0	-2	0	3	-17	▼
Erosketa handiak. EAE.**							
• Etxebizitza	1,8	2,1	2,5	0,8	0,7	1,1	▶
• Autoa	5,3	6,4	7,2	6,8	5,6	5,6	▶

⇒ (± 2 puntuko aldea)

* I. hiruhileko datuak urtarilla-otsaila batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

	2018	2019	III H-19	IV H-19	I H-20	II H-20	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	1	-2	-5	-10	-1	-24	▼
Adin-mailak							
• 25 eta 39 urte bitartean	6	4	5	-3	6	-19	▼
• 40 eta 54 urte bitartean	2	-2	-5	-10	-1	-24	▼
• 55 eta 64 urte bitartean	0	-6	-10	-13	-6	-26	▼
• 65 eta 74 urte bitartean	-7	-8	-13	-12	-6	-28	▼
Lan egoera							
• Landuna (soldatapekoa/ norberaren konturakoa)	6	1	0	-7	3	-22	▼
• Langabea	-8	-8	-8	-17	-9	-24	▼
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-4	-6	-12	-11	-5	-27	▼
Familia-unitatearen hileko errenta							
• 1.700 €-rainokoa	-14	-13	-15	-22	-12	-30	▼
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	3	0	-3	-6	1	-20	▼
• 2.800 €- tik gorakoa	12	4	2	-2	7	-21	▼

⇒ (±2 puntuko aldea)

III | beste adierazleak

	II H – 19	III H – 19	IV H – 19	I H – 20	II H – 20 _p	(azkena)
BPG	2,2	2,1	2,2	-3,2	--	I hir.
Familien kontsumoa	1,9	1,8	1,5	-4,8	--	I hir.
Afiliazioa	1,3	-0,6	1,8	-1,0	-2,3	maiatza
Erregistratutako langabezia	-4,9	0,6	0,1	5,8	24,5	maiatza
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	0,2	0,4	-0,2	-2,3	--	I hir.
Etxebizitzen salerosketa	-7,4	-10,1	-6,1	14,0	--	martxoa
Ibilgailuen matrikulazioa	7,3	-16,6	8,8	-35,6	-64,5	maiatza

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Faconauto. Hiruhilekoen arteko tasa.


Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo bikoia) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

ERANSKINA– METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esanahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ Consumer Confidence Indicator, dokumentu honetan aipatzen dena familiaren konfiantzaren indize bezala, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobegorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie.
- Maiatzaren 11tik 22ra (2020ko II. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak.
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm